

IHES SORGINDUA

IZENGOITIA: ILUN

Amak bakarrik ez ibiltzeko behin eta berriz errepikatuagatik, Garazik beti bereari eusten zion. *Hamar urterekin handia naiz* esanez, lasai arraio joaten zen eskolara. Egia zen amak zenbait lekutara bere kabuz joaten uzten ziola, bai, nahiz eta uda garaian, katea motzagoa izaten zen eta ataka estuagoa. Garazirengatik balitz, gauero hamabietan etxeratuko litzateke opor garaian, baina amak ez zion uzten. Beldur zen lapurren batek furgonetaren batean sartu eta berarekin eramango ote zuen. Garazik, ordea, ez zuen arriskurik ikusten inon eta are gutxiago lapur edo furgoneta misteriotsurik amak bezala. Berak goizaldea iritsi arte, lagunekin egon nahi izaten zuen udaletxeko petrilan eserita, limoizko izozkiak janez eta elkarri txisteak kontatuz. Hori zen bere desio bakarra: amaren gonapetik ihes egitea, lagunekin ahalik eta denbora gehien igarotzeko.

Ikasle fin eta ona zen arren, udan ikasketak ahaztu eta kalean ematen zuen egun osoa gurasoen haserretarako. Batzuetan loreak biltzen, besteetan gimnasten antzera itzulipurdika, lagunekin herriko iturrian elkar bustiz... Ilargian eguneko hogeita lau orduak. Biziki maite zituen Garazik uda garaiko egun luzeak eta ekaina bukaeratik iraila hasiera arte arnasten zen askatasuna. Bere erara ibiltzeko denbora gehiago nahi zuen, ordea, eta amak ukatu egiten zion eskatutakoa. *Matematikan eta ingelesean bikain atera dut!* gogorarazten zion amari etsipen aurpegiaz. Felisa, hala ere, ez zen alabaz errukitzen eta gaueko hamarrak arte aspertzeko nahiko denbora bazuela esanez jartzen zion etxerako itzulera ordua. Ikasle aparta izatearekin eskatutako guztia eman behar zitzaiola sinistuta bizi zen Garazi, baina gurasoak ez ziren iritzi berekoak. Horregatik, setatia zelako, sekulako plana otu zitzaion eta egun seinalatua iltzatu zuen gorriz egutegian: ekainaren 23a, San Joan gaua.

Herria goitik behera aztoratzen zen ekainaren azken asteko gau berezian. Urte osoan etxean gordeta ematen zuten aiton-amonak atarita hurbildu eta euren aurretik igarotzen ziren guztiei goitik beherako errepasoa emanez pasatzen zuten arratsaldea. Urte osoan etxe barruan ostendutako izpiritu txarrak atariko haizeaz uxatu nahian apika.

Halaxe, zentimetroz zentimetro neurtu zuen Garazik etxetik kanpoko lehen gaua izango zen ekainaren 23a. Etxean afalduta, lotara Ainhoarenera joango zela esango zion amari eta Felisak, Ainhoa gustuko zuenez, ez zion trabarik jarriko lagunaren etxean gaua pasatzeko. Gainera, etxetik alde egiteko gauza askorik ez zuela behar pentsatu zuen: bizpahiru txanpon egarriak jotzen bazuen eta Olentzerok ekarritako zira berria euria eginez gero. Mukizapiak ere bai, badaezpada. Plana antolatzeke asmotan zebilela, zeharo ahaztu zitzaion gurasoek ere lagunekin afaria izango zutela, beraz, ez zuten Garaziren hutsunea gehiegi nabaritutako goizaldera arte. Dena behar bezala lotuta zegoen okerrik gabe, ondo atera behar zuen guztiak.

“Labean patata-tortilla egin berria duzu. Gaur 12ak arte, gero etxera” amaren oharra hozkailuaren atean itsatsita. Behingoz, ohi baino ordu pare bat gehiagoko baimena gainera, arraioa! Auzoko guztiak elkarteko afarira joanak ziren eta Garaziren gurasoak ere bai, urteroko legeari jarraituz. Ez ziren asko ateratzekoak, baina urtean behin, bederen, gustuko zuten otordu hura egitea. Garazik ez zuen beste ezer behar abenturari ekiteko; etxeko atea giltzatu eta zapatiletako lokarriak estututa zeharkatu zuen atariko alfonbra. Ez zion beldurrik gauari, ezta bidean topa zitzakeen animaliei ere. Bizitzan estreinakoz bere buruaren jabe zela erakutsiko zien denei; ez zuen pentsatu nahi, haatik, etxera iristean jasoko zuen errietaz. Momentuan unekoa eta gero gerokoak. Hala ere, San Joan gaua zela kontuan hartuz, txikitatik zuen lepokoa jantzi zuen, “Xareta” zioen domina grabatua zeramana. Amonaren birramonaren birramonaren amonarena zena, amona Grazianarena, alegia. Garazik oso gutxitan eraman ahal izan zuen soinean, galduko zuelako beldurrez amak nekez uzten baitzion janzten. Gau hark merezi zuen, ordea, errieta ratio bikoitza.

Amari gezurra esatearekin aski ez eta sekulako balentria otu zitzaion Garaziri: Larruneko bidea hartzea. Herrian entzuna zuen San Joan gauean makina bat izpiritu izaten zirela bidera

ateratzen zirenak eta patua tentatzea baino ideia hoberik ez zitzaion bururatu. Ezbeharririk gerta ez zekion, aitik mendian barrena ibiltzeko egina zion makila ere berarekin hartu zuen. Mendian gora abiatu eta iluntasunarekin batera galdu zen gaueko hamarrak zirela.

-Abiatu beharko dugu etxera, Feli— Mikelek emazteari loak hartu beharrean.

Hain ondo ari zen pasatzen Felisa, aspaldiko partez lagunekin tertulian eta afalostean harrikorik egin beharririk izan gabe... Gutxitan izaten ziren halako aukerak. Kostata, eserlekitik altxa eta etxera abiatu ziren senar-emazteak, batak bestea gerritik helduta. Ezkongaietan bezala, baina hamabost urte beranduago eta zortzi kilo gehiagorekin. Etxerako bidean, hala ere, aurpegia zeharo zurbildu zitzaien, Ainhoa bere gurasoekin ere etxera abiatzen ikusi zutenean. Garaziren arrastorik ez. Atarira iritsi eta Laukiri utzitako pentsua han, jan gabe, eta Garazi falta. Beranduegi zen kalean barrena txakur batekin ibiltzeko; Felisa eta senarrari kolpetik ireki zitzaizkien begiak eztarrian sortu zitzaien korapiloaren erruz. Etxera igo eta negarrak hartu zuen mendean Felisa, alaba non demontre egon zitekeen ezin asmatuz. Senarrak telefonoa eskegi zuen lehenbailehen Udaltzainei deitu nahian. Ez zen beharrezkoa izan. Zenbakia markatzen hasi orduko, atearen bestaldean harramazkak eta zaunkak. Besaulkitik altxa eta atea zabaltzearekin batera, Garazi eta txakurra agertu ziren. Mela-mela eginda biak, nekatuta zeharo. Felisak alaba muxuez jan zuen, malkoak masailetan behera amiltzen zitzaizkion bitartean. Ikusi beharrekoak ikusita itzuli zen neskatoa.

-Amona Grazianak etxera etortzeko esan dit, domina galdu gabe— Garazik lotsaz.

Felisak orduan “Xareta” zegokion kutxan jaso zuen galdu gabe, San Joan gauaren epelean. Txinpartak eta sorginen hitzak oraindik bizirik zirauten gau luze eta magiko hartan. Ekainaren 23ko ke eta uluen oihartzun artean.